

# LURRAREN KARTA

## SARRERA

Lurraren historiaren une erabakigarrian gaude, gizateriak bere etorkizuna erabaki behar baitu. Mundua gero eta interdependentegoa izateaz gain, hauskorrago ere bihurtzen ari da. Etorkizunak, aldi berean, gero eta arrisku zein itxaropen handiagoak eskaintzen ditu. Eta gure munduan bizimodu eta kultura aunitz badaude ere, ezin uka norabide eta jomuga berberak dituen giza familia edota komunitate bakarra osatzen dugula. Baina elkartu beharra dugu, baldin eta gizarte duin bat sortu nahi badugu: naturarekiko errespetuan, giza eskubide unibertsalean, justizia ekonomikoan eta bakearen kulturaren oinarritutako den gizarte, hain zuzen. Helburu honen inguruan, beraz, Lurreko herri guztiok erantzunkizun handia dugu: elkarrekiko, bizitzaren komunitatearekiko zein etorkizunean heldu diren belaunaldiekiko.

### Lurra, gure etxea

Gizateria etengabe bilakaeran dabilen unibertso zabal baten zatia da. Gure etxea den Lurra bizirik dago, eta bizi komunitate propio bat du. Naturaren indarrek bultzaturik, existentzia bera abentura zorrotz eta argitzalez betea da. Alabaina, Lurrak ezinbertzeko baldintzak eskaini ditu, biziak aitzina egin dezan. Edonola ere, bizi komunitatea indarberritzeko eta gizateriaren ongizatea erdiesteko, behar-beharrezkoa dugu biosfera osasuntsua; horretarako, bere sistema ekologikoak zaindu beharko ditugu, ezin estimatuzko altxorak diren bere landare eta animaliak, lur emankorra, ur gardenak eta aire garbia. Lurraren bizitasun, aniztasun eta edertasunaren babesa betebeharrak sakratua da.

### Munduaren egoera

Ekoiaren eta kontsumo eredu nagusiak ingurugiroa suntsitzen ari dira, baliabideak agortzen eta espeziak desagertarazten. Bizi komunitateak suntsituak izaten ari dira. Garapenaren aberastasunak ez dira zuzen banatzen, eta aberats eta pobreen arteko amildegia handiago izaten ari da. Injustizia, pobrezia, ezjakintasuna eta gatazka bortitzak nagusitzen ari dira, eta sufrimendu aunitzen sorburu dira. Giza populazioaren hazkunde ikaragarriak zartatu ditu sistema ekologikoak eta gizarte egiturak. Hori dela eta, munduaren segurtasunaren oinarriak erortzeko arriskuan daude. Zernahi gisa, eta joera arriskutsuak izanagatik ere, ez dira saihestezinak.

### Datozen erronkak

Aukeraketa gure esku dago: edo Lurra zainduko duen gizarte bat sortzen dugu; edo, bertzenaz, bizitzaren aniztasuna suntsituko dugu. Baina funtsezko aldaketak behar dira gure balio, erakunde eta bizimoduetan. Oinarritzko betebeharrak aseturik ditugula, garbi ikusi behar dugu ezen giza garapena, gehiago edukitzearekin baino, gehiago izatearekin lotu behar dugula. Izaki guztien beharrak asetzeko eta ingurugiroa babesteko adinako ezagupen eta teknologiaren jabe gara. Gizarte zibil global baten sorrerak mundu demokratiko eta humanitario bat eraikitzeko aukera berriak eskaintzen ditu. Gure erronka ekologiko, ekonomiko, politiko, sozial eta espiritualak erlazionaturik daude, eta denok proposatu beharko genituzke zentzuzko konponbideak.

### Erantzukizun unibertsala

Helburu hauek lor ditzagun, izaki orok erantzukizun unibertsala aplikaturik jokatu beharko du bizitza honetan, eta bat egin Lurraren komunitate osoarekin zein gure ingurukoekin. Herrialde ezberdinetako hiritarrak izan arren, mundu berekoak gara. Eta tokian tokiko arloak zein mundu osoak arras lotuak daude. Denon erantzukizuna da gaur egungo nahiz etorkizuneko giza familiaren eta bizidun ororen ongizatea segurtatzea. Izatearen misterioarekiko begirunez jokatzekotan, bizitzaren aurrean esker onez eta gizakiak naturan duen lekuagatik umiltasunez biziz gero, elkartasun eta bizitza orekiko kidetasun espiritua indartuko da.

Azaleratzen ari den munduko komunitateak oinarri etikoa izan dezan, behar-beharrezkoa dugu funtsezko balioen gaineko ikuskera konpartitua. Hori dela eta, denok batera eta esperantza handiz, ondoko printzipioak aldarrikatu nahi ditugu – printzipio interdependente hauek bizimodu jasangarriago baten alde egiteaz gain, mundu osoko instituzio, gobernu, erakunde eta pertsonen jokabidea baloratu eta gidatuko nahiko lukete--.

## **P R I N T Z I P I O A K**

### **I. BIZI KOMUNITATEAREKIKO BEGIRUNEA ETA ZAINZA**

#### **1. Lurra eta bizitza bere aniztasunean errespetatu.**

- a. Onartu izaki guztiak elkarren menpekoak direla, eta bizi forma orok --bere erabilgarritasuna gorabehera--, gizakiendako balioa duela.
- b. Konfiantza aitortu gizaki guztioi berezkoa zaigun duintasunean eta gizateriaren ahalmen intelektual, artistiko, etiko eta espiritualean.

#### **2. Bizi komunitatea zaindu adimen, errukitasun eta maitasunez.**

- a. Onetsi natur baliabideen jabetza, kudeaketa eta erabilpenak ingurugiroaren kalteak saihestea eta pertsonen eskubideak errespetatzea dakartela.
- b. Adierazi ezen, guztien ongia bultzatzeko, zenbat eta askatasun, ezagupen eta botere gehiago, orduan eta erantzukizun handiagoa dagoela.

#### **3. Zuzenak, partehartzaileak, jasangarriak eta bakezaleak diren gizarte demokratikoak eraiki.**

- a. Ziurtatu maila guztietako komunitateek giza eskubide eta oinarritzko askatasunak bermatuko dituztela eta bakoitzari bere ahalmen guztien garapenerako aukera eskainiko diotela.
- b. Justizia sozial eta ekonomikoa bultzatu, guztiok bizimodu seguru, duina eta ekologiarren ikuspuntutik arduratsua izan dezagun.

#### **4. Lurraren fruituak eta edertasuna oraingo eta etorkizuneko belaunaldiei transmititu.**

- a. Onartu belaunaldi bakoitzaren eginbeharra geroko belaunaldien beharrek baldintzatzen dutela.
- b. Transmittitu heldu diren belaunaldiei lurraren komunitate ekologikoen zein giza komunitateen onura bultzatuko duten balio, ohitura eta erakundeak.

**Lau konpromiso orokor hauek gauzatu ahal izateko, ezinbertzekoak dira honako printzipio hauek:**

### **II. OSOTASUN EKOLOGIKOA**

#### **5. Lurraren sistema ekologikoen osotasuna berreskuratu eta babestu, eta aniztasun biologiko eta biziaren euskarri diren prozesuak bereziki zaindu.**

- a. Onartu ingurugiroaren berreskurapena eta iraupena ekarriko duten arautegi eta garapen jasangarriko planak, honelako ekimen guztien ezinbertzeko osagai baitira.
- b. Biosfera eta natur erreserba bideragarriak ezarri eta babestu, lur eremu basati eta itsasaldeak barne direla; gisa horretan, Lurraren gaineko biziaren euskarri diren sistemen zaintza bultzatu ahalko da, eta ondorioz, bioaniztasuna mantenduko da.
- c. Arriskuan dauden espezieak eta ekosistemak berreskuratu.
- d. Kontrolatu eta desagerrarazi ingurugiroko zein espezieendako kaltegarriak diren kanpoko organismoak edo genetikoki eraldatutakoak. Halaber, aipaturiko organismoen sarrera saihestu.
- e. Erabili berritzen ahal diren ura, lurra, basoetako produktuak eta itsasoen bizitza bezalako baliabideak; modu horretan, baliabideak berritzeko aukerak ez dira agortuko, eta ekosistemen osasuna zainduko da.
- f. Zentzuz erabili ezin berri daitezkeen mineral eta erregai fosilak, murriztu ez daitezkeen eta ingurugiroan kalte larriak ez gertatzeko.

**6. Ez kalterik egin ingurugiroan, hau babesteko metodorik egokiena baita; eta ezagupena mugatua denean, berriz, arreta handiz jokatu.**

- a. Beharrezkoak diren neurriak hartu, ingurugirorako kalte handiak edota konponezinak gerta ez daitezen, baita ezagupen zientifikoa osatugabea edo bukatugabea denean ere.
- b. Beharrezkoak diren frogak ezarri, eta ingurugiroan kalteak eragin dituzten erantzuleei dagozkien eginbeharrak betearazi; bereziki proposatutako jarduerak ez duela kalte nabarmenik sortuko arrazoitu dutenei.
- c. Ziurtatu erabakiek kontuan hartuko dituztela giza jarduera guztiak: metatzen ahal direnak, epe luzekoak, zeharkakoak zein orokorrak.
- d. Saihestu ingurugiroaren kutsadura, eta debekatu substantzia erradioaktibo, toxiko edo arriskutsuen metaketa.
- e. Saihestu ingurugiroa kaltetzen ahal duten jarduera militarrik.

**7. Erabili komunitatearen ongizatea, giza eskubideak eta Lurraren leheneratze ahalmena ekarriko dituzten ekoizpen, kontsumo eta ugalketa ereduak.**

- a. Murriztu, berrerabili eta birziklatu kontsumo eta ekoizpen sistemetan erabilitako materialak. Halaber, ziurtatu azken hondakinak sistema ekologikoei bereganatu ditzaketela.
- b. Neurriak eta zentzuz jokatu, energia erabiltzerakoan; eta gero eta gehiago erabili berritzen ahal diren eguzki-energia zein eolikoa.
- c. Bultzatu ingurugiroaren ikuspuntutik osasuntsuak diren teknologien transferentzia, erabilpen eta garapen zuzena.
- d. Sartu salmentaren prezioan ondasun eta zerbitzuen ingurugiro-kostua zein kostu soziala. Gisa horretan, kontsumitzaileak identifikatu ahalko ditu ingurugiro eta gizarte mailako arau zorrotzenak betetzen dituzten produktuak.
- e. Osasuna zaintzeko eskubidea ziurtatu, ugalketa arduratsua eta osasuntsua bultzatzeko.
- f. Hautatu asetasun materiala eta bizi kalitatea baloratuko dituzten bizimoduak, mundu mugatuan bizi baikara.

**8. Bultzatu jasangarritasun ekologikoaren gaineko ikerketak, eta sustatu eskuratutako ezagupenen aplikazio zabala zein elkartruke irekia.**

- a. Bultzatu jasangarritasunari buruzko nazioarteko lankidetzak zientifiko eta teknikoak, eta izan dezaten lehentasuna garapen bidean diren herrialdeen beharrek.
- b. Errespetatu eta zaindu ingurugiroa eta giza ongizatea babestu eta bultzatzea helburu duten ezagupen tradizionala eta espirituaren jakinduria.
- c. Ziurtatu ezen gizakien osasunerako zein ingurugiroaren babeserako ezinbertzekoa den informazioa --informazio genetikoa barne-- mundu guztiaren esku egon dadila.

### **III. JUSTIZIA SOZIAL ETA EKONOMIKOA**

**9. Pobrezia desagerrarazi, ingurugiro-agindu eta agindu etiko zein sozialari jarraikiz.**

- a. Beharrezkoak diren bitarteko nazional zein internazionalak erabili honako baliabideak denon eskura egon daitezen bermatzeko: ur edangarria, aire garbia, elikagai osasuntsuak, kutsatu gabeko lurra, etxebizitza bat eta saneamendu sare segurua.
- b. Eskaini gizaki guztiari bizimodu jasangarria eskuratzeko heziketa eta bitartekoak. Halaber, gizarte-segurantza eta laguntza-sareak eskaini behar handien dituztenendako.
- c. Baztertuak onetsi, ahulak babestu eta sufritzen dutenei lagundu. Ahal den guztia egin pertsona guzti hauek beren gaitasunak gara ditzaten, eta euren helburuekin bat egin.

**10. Ziurtatu arlo guztietako jarduera eta erakunde ekonomikoek giza garapen jasangarria eta bidezkoa susta dezatela.**

- a. Bultzatu aberastasunaren banaketa zuzena, bai nazio bakoitzean bai nazioen artean.
- b. Handitu garapen bidean dauden herrialdeen baliabide intelektual, finantziario, tekniko eta gizarte mailakoak. Eta bertan behera utzi herri hauek dituzten kostu handiko zorrak.
- c. Ziurtatu merkataritza arloko erakundeek baliabideen erabilpen jasangarria, ingurugiroaren babesa eta laneko arau aurrerakoiak bultzatu ditzaten.
- d. Onura publikorako gardentasunez joka dezaten, nazioarteko korporazio eta erakunde finantziarioak informatu eta inbolukratu, eta euren jarduerak eragin ditzaketan kalteengatik erantzukizunak eskatu.

**11. Garapen jasangarria lor dadin, generoen arteko berdintasuna eta zuzentasuna onetsi, eta ondoko eskubideak segurtatu: hezkuntza, osasuna eta lanpostua.**

- a. Emakumeen eta neskatikoen giza eskubideak bermatu eta haien aurkako indarkeriarekin akitu.
- b. Arlo ekonomiko, politiko, zibiko, sozial eta kulturalen, emakumeen parte hartze aktiboa sustatu, erabakiak hartzeko eskubide berberak izan ditzaten, eta buru gisa zein onuradun gisa ere euren eskubideak errespetatu daitezten.
- c. Familiak indartu eta hauen kide guztien babesa eta maitasunezko hazkuntza ziurtatu.

**12. Gizakion duintasunaren, osasunaren eta ongizate espiritualaren aldeko eremu natural eta sozialarekiko denon eskubidea segurtatu. Eta arreta berezia eskaini dakiela gutxiengoaren zein herri indigenen eskubideei.**

- a. Arraza, hizkuntza, erlijio, sexu joera, genero, kolore, nazio, etnia edo gizarte jatorrian oinarritutako edozein motatako diskriminazioa desagerrarazi.
- b. Herri indigenen eskubideak onartu, beren espiritualtasunak, ezagupenek, lurrek eta baliabideek zein bizimodu jasangarri batekin loturiko praktikek iraun dezaten.
- c. Gure komunitateetako gazteak lagundu, gizarte jasangarrien eraketan parte har dezaten.
- d. Erranahi kulturala edo espirituala duten leku garrantzitsuak berreskuratu eta babestu.

#### **IV. DEMOKRAZIA, INDARKERIAK EZA ETA BAKEA**

**13. Instituzio demokratikoak maila guztietan indartu. Eta gobernatzerakoan, partehartzean eta justizia mailan gardentasuna zein erantzukizuna eskaini.**

- a. Aldarrikatu ingurugiro gaietarako buruzko informazio argia eta egokia jasotzeko guztiok dugun eskubidea. Baita guran eragina izan dezakeen edota interesgarria izan daitekeen garapen jardueraren edo plan guztien gaineko informazioa ere.
- b. Tokian tokiko, herrialdeko eta mundu mailako gizarte zibilari lagundu. Eta erabakietan interesa duen erakunde eta gizabanako ororen parte hartze esanguratsua sustatu.
- c. Adierazpen eta iritzi askatasuna zein biltze baketsurako, elkartzeko eta desadostasunerako askatasuna zaindu.
- d. Ingurugiro kalteengatik -edo kalte horien mehatxuagatik- prozedura administratibo eta judicial independenteetara iristeko aukera eraginkorra ezarri, konponbide eta kalteordainak barne.
- e. Desagerrarazi erakunde publiko zein pribatuetaiko ustelkeria.
- f. Tokian tokiko komunitateak indartu, beharrezkoak diren bitartekoak eskainiz, nor bere ingurugiroa zaindu ahal izateko. Eta gainera, ingurugiro horrekiko erantzukizuna gobernu maila egokietan ezarri, ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

**14. Bizimodu jasangarria lortzeko asmoz, beharrezkoak diren trebetasun, ezagupen eta baloreak heziketa formaletan zein bizitzan zeharreko ikasketatan integratu.**

- a. Garapen jasangarrian aktiboki laguntzeko gai izan gaitezten, guztioi heziketa aukerak eskaini; eta bereziki haur eta gazteei.
- b. Arteen eta humanitateen, gainontzeko zientzien bezalaxe, jasangarritasunaren gaineko hezkuntzan lagundu dezaten bultzatu.
- c. Hedabideen zeregina indartu, arronka ekologiko eta sozialeen aitzinean gizakion kontzientzia piztu dezaten.
- d. Onartu heziketa moral eta espiritualak duen garrantzia bizitza jasangarriaren eraketan.

**15. Izaki bizidun oro begirunez eta arduraz tratatu.**

- a. Giza komunitateetan bizi diren animalien aurkako ankerkeriari aurre egin eta sufrimendutik babestu.
- b. Animalia basatiak babestu. Horretarako, saihestu behar dira oinaze latza edota sufrimendu luzea eragiten dizkieten ehiza, amarru edo arrantza metodoak.
- c. Ahal den neurrian, dibertsio, arduragabekeria edota ezjakintasunagatik egiten diren animalien salerosketa eta suntsiketa saihestu edota desagerrarazi.

**16. Tolerantzia, biolentziarik eza eta bakearen kultura sustatu.**

- a. Nazio bakoitzaren barnean zein nazioartean, herri guztien arteko kooperazioa, elkatasuna eta elkar ulertzea lagundu eta bultzatu.

- b. Gatazkak bortitzak ebitatzeko, estrategia eraginkorrek abiarazi. Eta ingurugiroaren gaineko arazoak zein bertzelako liskarrak konpondu edo kudeatzeko asmoz, lankidetzak erabili.
- c. Nazioen segurtasun sistemak desmilitarizatu. Eta baliabide militarrek helburu baketsuetarako erabili, baita berrezarpen ekologikorako ere.
- d. Arma nuklearrak, biologikoak, toxikoak zein suntsipen masibokoak desagerrarazi.
- e. Ziurtatu orbita eta kanpo espazioaren erabilpena ingurugiroaren babes eta bakerako izan dadin.
- f. Onartu bakea dela gizaki orok erdietsi behar dugun helburu nagusietako bat, arlo guztietan erdietsi ere.

## **A U R R E R A   B E G I R A**

Orain arte ez bezala, etorkizun komunak abiapuntu berri baten bila bultzatu gaitu. Eta berriztatze hau da Lurraren Kartaren printzipioen promesa. Baina promesa hori betetzeko, bertan bilduriko balore eta helburuak bultzatu eta geureganatzeko konpromisoa hartu beharra dugu.

Prozesuak pentsakeraren eta sentimenduen aldaketa eskatuko du; eta eskatuko du, halaber, elkarrekiko menpekotasun eta erantzukizun unibertsalaren zentzu berria. Herri, nazio, herrialde zein mundu osorako bizimodu jasangarria bultzatuko duen garapen eta irudimen handiko ikuspegia aplikatu behar dugu. Geure kultur aniztasuna ondare ezin hobea da, eta kultura ezberdinek beren modu propioak bilatuko dituzte aldarrikaturikoa gauzatu dadin. Lurraren Kartak mundu osoan sortu duen eztabaida indartu eta zabaldu behar dugu, egia eta jakinduriaren bilaketan asko baitugu ikasteko.

Bizitzak, aunitzetan, balore garrantzitsuen arteko gatazketara eramaten gaitu. Eta batzuetan erabaki zailak hartu behar izaten dira. Edonola ere, balore diferenteak uztartzen jakin behar dugu: aniztasuna eta batasuna, askatasuna eta ongizate komuna, epe laburreko helburuak eta epe luzekoak. Gizabanako, familia, erakunde eta komunitate orok eginkizun garrantzitsua bete behar du. Arte, zientzia, erlijio, hezkuntza erakunde, hedabide, enpresa, gobernu kanpoko erakunde zein gobernu gidaritzaren lan handia egin beharko dute. Eta benetako gobernagarritasuna lortu nahi bada, ezinbertzekoa da gobernu, gizarte zibil eta enpresen arteko elkarlana.

Mundu osorako bizimodu jasangarriagoa erdiestekotan, behar-beharrezkoa da nazio guztiek Nazio Batuen Elkartearekin duten konpromisoa berrestea. Halaber, nazioarteko hitzarmenekiko dituzten betebeharrak betetzeaz gain, Lurraren Kartaren printzipioen ezarpena bultzatu beharko dute; horretarako, ingurugiro eta garapenari buruzko nazioarte mailako bitarteko lotesle eta legezkoari jarraikiko zaizkio.

Geure garaia oroitu izan dadila bizitzaren aintzineko gurtza berri baten iratzartzeagatik, jasangarritasuna eskuratzeko erabaki sendoagatik, justizia eta bakearen aldeko borroka azkartzeagatik eta bizitza beraren ospakizun alaiarengatik.